

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak 40 plaza izanen ditu bakarrik dauden adingabei arreta eskaintzeko

Aldi berean, hezkuntza eta enplegu arloko baliabideak abiarazi dira adingabeen oinarritzko zein lan formakuntzarako, laneratzea eta gizarteratzea errazteko xedez

Asteazkena, 2018.eko azaroak 14

Eskubide Sozialetako Departamentuak, Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren (PAGNA) bitartez, Bakarrik dauden Adingabe Atzerritarrak babesteko 25 plaza mistoen kudeaketarako lizitazio prozesua bukatu du (horietatik, 5 plaza lehen harrera eta ebaluazioa egiteko erabiliko dira). Honi, joan den urrian abiarazitako 15 plazako beste baliabide bat gehitu behar zaio. Neurri hau Nafarroako Gobernuak onartu du gaurko bileran.

Lizitazioko kontratuaren bitartez, hurren babeserako programa abiarazteko administrazio-esparrua eta beharrezko baliabideak bideratu nahi dira Nafarroako Foru Komunitatean bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzat. Hartara, adingabe horien arreta eta laguntza integrala bermatzeko, esku hartzeko metodologia berri bat erabiliko da, beharren oinarritzko estaldura segurtatuz, baina aldi berean, alfabetizatze hezkuntza-ibilbideetan eta lan-gaitasunak sustatzeko formakuntza-ibilbideetan txertatuz eta, aisialdiaren bitartez, komunitate-bizitzan murgiltzea ahalbidetuko dieten ekintzak bideratuz. Horren harira, programa honetaz profitatzeko, bakarrik dauden adingabe atzerritarrek babes sisteman sartuta eta babesgabetasun egoeran egon behar dute, haien zaintzaz edo babesaz ardura daitekeen ahaide heldurik gabe.

Kontratu hau komunitate-prezioa gainditzen duen prozedura irekiaren bitartez esleituko da, publikitatea tarteko. Honen indarraldia 5 urtekoa izanen da (2019-2023) eta 2019ko urtarrilaren 15ean hasia aurreikusi da.

Kontratuari kalkulatu zaion 5 urteko prezioa 4.747,635 eurokoa da (BEZ gabe) eta kudeaketarako urteko gehienezko aurrekontua 949.527 eurokoa izanen da (BEZ gabe). Esku-hartzea egiteko erabiliko diren metodologia eta baliabideak diseinatzeko, berealdiko ahalegina egin da eraginkortasun sozial eta ekonomikoari eusteko, % 22ko aurrezki ekonomikoa ekarriko baitute ohiko egoitza-harreraren ereduaren aldean, esku-hartzeak artatutako adingabeen beharretara egokitzeaz gain.

Lizitazio honi dagokion kontratuari esker, egoitza-baliabidean harrera egiteko 40 plaza bermatuko dira (horietatik, 5 plaza lehen harrera eta ebaluazioa egiteko erabiliko dira). Baliabide hauek beharrezkoak bezain nahikoak izanen dira, Nafarroako Komunitatean Bakarrik dauden Adingabe Atzerritarrak epe labur eta ertainean behar bezala artatu ahal izateko.

Egun, Eskubide Sozialetako Departamentua, Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren bitartez, bakarrik dauden 60 Adingabe Atzerritar artatzen ari da tutoretza egoeran. Era berean, Administrazio Zentralak zenbait autonomia-erkidegotan bakarrik eta pilotuta dauden Adingabe Atzerritarren soberako kopurua autonomia-erkidegoen artean banatzeko egin duen planteamenduaren ondorioz, Nafarroak beste 10 adingabe jasoko ditu, eta Estatuak 240.000 euro inguru emango dio ordainetan.

Bakarrik dauden Adingabe Atzerritarren azken hilabeteotako etorreren igoera begien bistakoa da Estatuko zenbait lurraldetan. Fenomeno honek garrantzi handiko inpaktua eragin dio Nafarroako Hautzaroa Babesteko Sistemari, bereziki egoitza-harrera egiteko zerbitzuetan, hau da, erakunde publikoak adingabe horien tutoretzaz arduratzeko erabili beharreko egoitza izaerako babes-baliabideetan. Hasieran Nafarroako Gobernuak Adingabeen eta Familiaren Zuzendariordetzari eragin dion arazo hau beste maila batzuetara ere hedatu da: Polizia, Fiskaltza, zerbitzuen kudeatzaileak... betiere migrazioen fenomenoari oro har lotuta dauden zenbait arazoren ondorioz (kasu honetan, dirua ez da arazo bakarra izan, baita gai politikoak eta sozialak ere).

Ikuspegi honetatik landu da eredu hau, ondoko gako hauek kontuan hartuz: 1) helburua ez da Haurrak Babesteko Sistemari aurreikusitako ohiko babesgabetasun egoerei (abandona, tratua, sexu-abusua...) erantzutea, baizik eta migrazio arazo baten ondorioz ahaidetasunezko zaintzaile heldurik ez duten adingabeak artatzea; 2) Bakarrik dauden Adingabe Atzerritarrei babes soziala eskaintzeko eredu estandarizatu berria da, haien autonomia hobeto garatzeko testuinguruak sortzeko aukera eskaini eta banakako beharretara egokitzeko malgutasuna duena, etorkizunean 16 eta 21 urte bitarteko etengabeko arreta erraztuko duen esparru kontzeptualari atxikitako arreta integrala ematen duena.

Formakuntzarako proposamena

Era berean, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza Departamentuaren lankidetzaz, gaitasunei buruzko formakuntza segurtatzeko proposamena diseinatu da, gerora adingabe atzerritarrei lan-merkatuan sartzeko aukera errazteko. Hezkuntza Departamentua 16 eta 17, 5 urte bitarteko adingabeen formakuntzaz arduratuko da, eta Nafar Lansarea 17,5 urtetik gorakoena.

Proposamen hau lantzeko unean, 13 adingabe sartuta zeuden formakuntza-programa arautuetan (HMP, DBH edo oinarrizko LH).

16 eta 17, 5 urte bitarteko adingabeentzat, Hezkuntza Departamentuak formakuntza soziolinguistikoa eta profesionala uztartzen dituen programa diseinatu du.

Helburu orokor bikoitz hau ondoko helburu espezifiko hauetan banakatu da:

- Hezkuntza esparru arautuago batean doitasunik ezak eta frustrazioak murrizteko hezkuntza formakuntza.
- Lan orientazio espezifiko eta egokiturako formakuntza, adingabeei erabakiak hartzen lagunduko diena.
- Lehen mailako kualifikazio profesionala.
- Gaztelaniari buruzko formakuntza, hizkuntza menperatzea funtsezkoa baita integrazio sozial eta kulturalerako.
- Kultura hartzailearen ezagutza, eskolaz kanpoko jardueren hautaketa baten bitartez.
- Gizarte nahiz autonomia arloko trebetasunak lantzeko gaitasuna espezifiko.
- Migrazio prozesuaren edozein unetan sor daitezkeen arazo psikologikoen zaintza espezifiko, ikastetxeko orientazio-taldeko profesionalen bitartez.

Hezkuntza eskaintzak honako kualifikazioak barne hartuko ditu: lorezaintza Nekazaritza-Basozaintzako Ilan, sukaldaritza Burlata Ilan, fabrikazioa eta muntaketa Virgen del Camino IIPan, biltegiko

eragiketak María Ana Sanz Ilan eta ibilgailuen elektromekanika Uharte BHIan, eta ikasteak 8na kide dituzten taldeetan banatuko dira.

17,5 urtetik gorakoen kasuan, Nafar Lansarearen esku-hartzea honela antolatuko da:

Orientazio profesionalaren arloan, arreta-mailak zehaztu, tutoreak esleitu eta Enplegu eta Formakuntzarako Programa Indibidualizatua (PIFE) diseinatuko da.

Era berean, laneratze aurreko formakuntza emanen zaie gaztelaniazko hizkuntza gaitasunak, matematika, Foru Komunitateko errealitatearen arabeko garapen pertsonala eta soziala nahiz programaren ondoren (PIFE, EETT, etab.) balia daitezkeen sektoreetarako gaitasun teknikoak lantzeko.

Hori guztia Nafar Lansarearen eta egoitza-baliabideen artean koordinatuko dute adingabeen jarraipena egiteko, eta boluntarioen laguntzaz osatutako mentoring programa bat ere izanen du adingabeen integrazio soziofamiliarra errazteko, Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren bitartez.